




- **DISTANTZIA:** 5,5 KM
- ⌚ **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 2 H
- ↗ **DESNIBELA:** 280 M

# SL<sup>®</sup>- NA 80

## ARRAKO

**HASIERA:**  
NA-137. KM 43

- OHARRA:**
- Neguan zonalde izoztuak aurkitu ditzazkegu, baita elur-jausiak eta erorketa bertikalak izateko arriskua ere. Neguan hemendik ibiltzea oso arriskutsua da.
  - Urtaroko emari ezberdineko troka batzuk zeharkatzen ditu ibilbide honek. Ez da gomen-dagarria uholde kasuetan hemendik zeharkatzea.



Arrakoko itzulia ibilbide zirkular bikaina da, Belagua ibarreko onena laburbiltzen duena: ehun urteko pagadiak, erreka emaritsuak eta Arrakoko ur-jauziaren bazter ederra. Ibilaldia erlojuaren noranzkoan egitea gomendatzen da, Arrakotik Juan Pito bentarako igoera atseginagoa izan dadin. Hasieran igoera leuna da, larreetan eta pinudian barrena, baina aurrera joan ahala bidea aldapatsuago bihurtzen da, pagadi liluragarri batera heldu arte. Arrakorako jaitsiera pikoan ur-jauzitik eta baselizatik igarotzen da.